

IBAR EZKERRA IKASTOLA

Goi mailako prestakuntza-zikloa
D eredua - Euskara

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN SUSTAPENENKO GOI TEKNIKARIA



www.ibarezkerra.net
Tel: 94 472 43 66
PORTUGALETE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Itunpeko ikastetxea



ER-1764/2007

GORPUTZ ETA KIROL EKINTZEN SUSTAPENEN GOI TEKNIKARIA

SARRERA IKASKETAK

- ⊗ Batxilergoko edozein modalitatearen bigarren ikasturtea gainditurik izatea.
- ⊗ Goi-teknikariaren titulua, LHIIIko teknikari espezialistaren titulua edo akademikoki parekoa den beste tituluren bat izatea.
- ⊗ Unibertsitate-titulua edo pareko bat izatea.
- ⊗ 25 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- ⊗ Goi mailako zikloetan sartzeko sarbide-probak gainditu izana 19 urte dutenentzat probaren urtean beteak; edo 18 urte, lortu nahi den titulurekin loturiko teknikari-titulua izatea egiaztatuz gero.

EGINKIZUNAK LAN MUNDUAN

- ⊗ Bezero/erabiltzaileei gorputz eta kirol ekintzen praktikari lotutako alderdiei buruzko informazioa eman.
- ⊗ Programazio orokorretik abiatuta, gorputz eta kirol ekintzen gaineko lan-plana eta saioak landu eta ebaluatu.
- ⊗ Ekintzak ingurunearen eta erabiltzaileen ezaugarrietara moldatu.
- ⊗ Programa eta entrenamendu indibidualizatuak edo pertsonalizatuak zehaztu.
- ⊗ Ekintza segurtasun-baldintzetan antolatu eta burutu.
- ⊗ Programazio orokorretik abiatuta, gorputz eta kirol ekintzak irakatsi eta sustatu.
- ⊗ Talde-dinamizazioan jardun (umeak, nerabeak, helduak, 3. adina, ea.).
- ⊗ Istripu edo gaixotasunaren kasuan lehen laguntzak eman eta ur sorospena burutu.
- ⊗ Bere mailan, jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ikuskizunak antolatu, zuzendu eta garatu.

IKASKETA PLANA: Orduetgia: 08:30-15:00

LANBIDE MODULUAK (Lehenengo maila)	ORDU	OR/ASTERO
Animaziorako jokoak eta jolas ekintza fisikoak	128	4
Gorputz eta kirol ekintza indibidualak	288	9
Taldeko gorputz eta kirol ekintzak	224	7
Oinarri biologikoak eta egokitzen fisikoaren oinarriak	192	6
Talde dinamika eta animazioa	64	2
Gorputz eta kirol ekintzen metodologia didaktikoa	96	3
LANBIDE MODULUAK (Bigarren maila)		
Tresna bidezko gorputz eta kirol ekintzak	262	12
Astaldiko eta g.z.ko enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	90	4
Lehen laguntzak eta uretako sorospena (1)	130	6
Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak	63	3
Lan prestakuntza eta orientabidea	63	3
Kalitatea eta etengabeko hobekuntza	42	2
Lantokiko prestakuntza	357	6,5-7
GUZTIRA	2000	

(1) Ibar Ezkerra ikastolak baimena dauka hasierako eta etengabeko prestakuntza-kursoak emateko, kanpo-desfibriladore automatikoak erabiltzeari dagokionez.

LAN IRTEERAK

- ⊗ Kirol-ekintza indibidualen eta taldekoen monitore profesionala.
- ⊗ Populazio berezientzako (hirugarren adina, eskolarrak,...) gorputz eta kirol ekintzen monitore profesionala.
- ⊗ Personal training.
- ⊗ Gorputz eta Kirol ekintzen koordinatzailea.
- ⊗ Jolas eta kirol -izaerako ekintzen sustatzailea edo kirol zuzendaria.
- ⊗ Ur sorospenerako teknikaria eta ur ekintzen monitore profesionala.

IKASKETA IRTEERAK

- ⊗ Selektibitate gabe, unibertsitate pribatuetan zein publikan, graduatara sarbide zuzena:
 - Medikuntza gradutik hasita, Gorputz eta Kirol Ekintzetako Zientziak (SHEE) gradua, Lehen Hezkuntza, Erizaintza, Fisioterapia,...
 - Eskariak ordenatzea beharrezkoa izanez gero, lanbide heziketatik onarpen nota zikloan lortutako batasteko notarekin eta lortutako bi nota hoberekin kalkulatu da.
- ⊗ Beste goi mailako zikloentzako sarbide zuzena.
- ⊗ Kirol modalitate guztientzako Kirol teknikaria eta goi mailako kirol teknikarien tituluentzako sarbide zuzena.
- ⊗ Kirolaren Euskal Eskolak ematen dituen prestakuntza ekintzetara, titulu ofiziala lortzeko bideratuta daudenak hain zuzen ere, sarbide zuzena; heziketa zikloa egin izanagatik dauden konbalidazioak edo konpentsazioak kontutan hartuta.



%100

enplegu tasa

GOI MAILA

PRESTAKUNTZA OSAGARRIA, EKINTZAK ETA ZERBITZUAK

ORIENTAZIOA, TUTORETZA ETA UNIBERTSITATERAKO IZAPIDETZEAK

Heziketa zikloko bi ikasturtetan zehar ikasle talde bakoitzak tutorea izango du. Tutoreak bai ikasleekin baita, behar izanez gero, gurasoekin ere kolaboratuko du, ikasketa prozesua ondo joan dadin, baita ikasleek ikasketak amaitu ondoren eta ondorengoa aukeratu behar denean ere, baldintza onenetan egon daitezten. Hau da, lanean hasi edo ikasten jarraitu. Ildo honetan, unibertsitatean sartzea erabakiz gero, informazioa (ikastetxeak, sartzeko notak, epeak,...) eta beharreko izapidetzeak egiten laguntzen ditugu banakako tutoretzatan. Tutoretza hauetan ikasleak daukan errendimendua kontuan hartuta aholkatzen zaio.

ENPRESA PROIEKTUEN SUSTAPENA

Gure ikastolak gaitasun ekintzaile, sortzaile eta berritzailea gure ikasleengan sustatzeko asmoz, urtero Foru Aldundiko Prestakuntza eta Enplegu Sailak antolatzen dituen ikastaro eta ideien txapelketetan parte hartzen du. Piraguen alokairua eta eskoletarako kirol zerbitzuak izan dira sortutako azken enpresa proiektuak.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK HOMOLOGATUTAKO ZENTROA

Gure zentroak tokiko eta udaleko enplegu zentroentzat (Behargintzak eta Ingurualde) gorputz eta kirol ekintzen arloan ikastaroak ematen ditu. Ikastaro hauek prestakuntza espezializatzen eta osatzen laguntzen dute baita laneratze prozesua kalitatekoa izaten ere. Emandako azken ikastaroa: "Populazio berezietan gorputz eta kirol ekintza osasungarrien proiektuen diseinua"

ENPRESA KOLABORATZAILEAK

ARABA FITNESS CENTRO DEPORTIVO
BODY CENTER BILBAO
POLIDEPORTIVO UNIVERSITARIO DE LEIOA
GETXO KIROLAK
CLUB DEPORTIVO BILBAO
EMTESPORT S.L.
GIMNASIO NAGUSIA
SERVICIO
CENTRO DEPORTIVO PRESIDENT FITNESS CENTER, S.L.
METROPOLITAN

SPORT STUDIO
TALDE SPORT SERVICIOS DEPORTIVOS, S.L.
XAKER KIROL ZERBITZUAK, S.L.
GUEDAN SERVICIOS DEPORTIVOS S.A.
HYDRA THE ACTIVE CENTER
GESTIÓN DEPORTIVA AQUAFITNES, S.L
SESTAO KIROLAK
DIPUTACIÓN DE BIZKAIA. DIRECCIÓN DE DEPORTES.
XIBA
URTZI FITNESS, S.L.

INSTALAZIOAK



IRTEERAK ETA EKINTZA OSAGARRIAK

Kiroleko heziketa zikloa hainbat mintegi, hitzaldi eta enpresen bisitaz osatzen da. Hauek prestakuntza hobetzen lagunduko dute, baita lan merkatuaren errealitatea eta enpresa eta enpresa-zerbitzuak ezagutzen ere. Burututako azken ekintza: Besteak beste, honako hauek antolatu ohi dira: hiru eguneko eskiatzerako irteera, surf ikastaroa, arraunketa ikastaroa eta kirol ekitaldien antolaketan parte hartzea. Informazio gehiago: <http://ibarezkerra.blogspot.com/>



LAN POLTSA ETA ENPLEGUNA

Gorputz eta kirol ekintzetako lanbide arloa ondo gaintitzen ari da krisi ekonomikoa eta kirol teknikarien beharra areagotu egin dela esan daiteke administrazio publikoek denontzako kirola sustatzen jarraitzen dutelako. Sustatzaile pribatu berriak sortu dira. Enplegu eskaintzak irakurtzea besterik ez da egin behar honetaz jabetzeko. Bizkaiko kirol zerbitzuen enpresek eta kirol zentroek gure zentroa ere kontutan hartzen dute langileak behar dituztenean. Ildo horretan, gure ikasleei eta ikasle ohiei curriculum vitae-aren kudeaketa zerbitzua eta enpresekiko bitartekaritza zerbitzua eskaintzen zaizkie.

EGA TITULUA ETA ANTZEKOAK PRESTATZEKO IKASTAROA

Gorputz eta kirol ekintzen goi mailako zikloa ikasi bitartean EGA titulua prestatzeko ikastaroa ahalbideratzen du gure zentroak. Horretarako, 120 orduko ikastaroa antolatzen dugu euskaltegi homologatu baten esku. Ikastaroa gure ikastolan bertan ematen da arratsaldeko ordutegian, klaseak amaitzen dituztenean, eta bertan zikloko ikasleek besterik ez dute parte hartzen. Prestakuntza ikastaroan on-line bidez eginiko ekintzak ere badaude.

HOBETUZ

Gure zentroak Hobetuz, Etengabeko Prestakuntzarako Euskal Fundazioarentzat ikastaroak ematen ditu kirol arloan. Aurten 200 langile baino gehiagok ondoko ikastaroen batean parte hartuko dute: "pilates", "ciclo indoor", "aquagim", "ur sorospeneko erreziklajea" eta abar.

MATRIKULA EGITEKO ARGIBIDEAK

MATRIKULAZIOA GOI MAILAKO ZIKLOETAN:


Kiroleko goi mailako zikloa egin nahi izanez gero, argibideak jasotzeko, aurrematrikula eta matrikula egiteko ezarritako egutegia honako hau da:

- a) **ARGIBIDE ESKABIDEA ETA PLAZA GORDE***: maiatzaren 28ra arte.
 - Ikastolan bertan. Ordutegia kontsultatu 94 472 43 66 telefonoan.
 - on-line, www.ibarezkerra.net web orrialdearen bidez egin daiteke.
- b) **AURREMATRIKULA OFIZIALA**: Eskabideak eta dokumentazioa, maiatzaren 31tik ekainaren 11ra, biak barne:
 - Ibar Ezkerra ikastolan bertan eta behin besterik ez da egingo. Horretarako, informatika-aplikazio berezi eta bakarra erabiliko da. Eskabidea egitean, beste bi zentro edo heziketa ziklo batzuk egiteko aukera dago zentro horietan eskabidea egin behar izan gabe.
 - Aurrematrikula egiteak ez du ez matrikula egitera ezta beste ezertara ere behartzen.
 - Entregatu behar den dokumentazioa: NANaren eta espedientearen fotokopiak.
 - Aldez aurretik dokumentazioa entregatu duten pertsonen izapidetze horiek jakinarazi eta ofizioz egingo zaizkie.
 - Aurrematrikula eskabidea egiten ez dutenak ezohiko matrikula epealdira sartuko dira zuzenean edo ohiko matrikula epealdira, plazak egonez gero.
- c) **OHIKO MATRIKULA**: Uztailaren 7tik 13ra, biak barne. Ibar Ezkerra ikastolan bertan eta behin besterik ez da egingo.
- d) **ITXARON ZERRENDAKO IKASLEEN OHIKO MATRIKULA**: Uztailaren 14tik 15era, biak barne.
- e) **EZOHIKO MATRIKULA**: Uztailaren 29ra arte.
- f) **EPEALDI OSAGARRIA**: Plazak egonez gero irailaren 30era arte egin ahalko da.

* Hezkuntza Sailaren 2010eko martxoaren 24ko aginduak ezarritakoa errespetatuko da.



**EZINBESTEKOA DA EZARRITAKO DATETAN
AURREMATRIKULA EGITEA
PLAZA LORTU NAHI BADUZU**



IBAR EZKERRA IKASTOLA
Alonso Allende multzoa z/g
48920 PORTUGALETE
tel: 94 472 43 66
www.ibarezkerra.net
ibarezkerra@ikastola.net